



Eusko Jaurlaritza  
Kultura Saila  
Bingen Zupiria jauna

Jaun agurgarria,  
(*sarrerako azalpena*)

Beraz, honekin batera, gure elkartearen izenean soilik dagoen egoeraren deskripzioa eta eskaera berresten dizkizugu:

Eusko Jaurlaritza Iruña-Veleiako ondare arkeologikoaren jabea da eta, beraz, polemika penagarri honen arduradun nagusia, datazioak 10 urtetan egin ez izanaren erantzule nagusia, indusketa hiru aldiz hondeamakinaz suntsitu izanaren arduradun nagusia, eta, tamalgarriena, Eliseo Gil eta Oskar Escibano, ganorazko froga zientifikorik gabe epaituak izateko, espetxe zigorrak jasateko eta 300.000 euroko isuna jasotzeko arduradun gorena.

Hori ikusita, eta polemika tamalgarri honi irtenbide zientifiko bat eman diezaiozun, *Euskararen Jatorriak* eskaera hauek egin nahi dizkizu:

1. Jaurlaritza ondorearen jabea denez eta 11 urte hauetan dataziorik egin ez denez (azaleko analitikak bai baina horiek ez dira datazioak) eta epaiketa urria-azarora arte hasiko ez denez, denbora dugu 12 bat grafito datatzeko: zeramikak, hezurak eta adreiluak, Europako prestigioako laborategi desberdin eta prestigioetsuenetan. Datatzera eraman beharreko grafitoak Lurmen eta Aldundiarekin adostu beharko lirateke, baina adierazgarrienetako batzuk hauexek dira: LURA-SUA eta YAVE adreiluak, buztinezko taulan egindako Azken Afaria, kedarra gainean duen marrazkietako bat, karbonato kaltzikoz estalitako grafito batzuk (Gure Aita...), etab.
2. Datazio horiek egin ahal izateko, Jaurlaritzak Aldundiari eta Epaitegiari baimena eskatu beharko lieke eta hilabete batean edo bitan datatu daitezke.
3. Faltsuak direla aterako balitz, epaiketarako ganorazko froga edukiko lukete Aldundiak eta Fiskaltzak.
4. Egiazkoak balira, epaiketa atzeratzea eskatuko litzateke eta beste 50 bat grafito datatzera bidaliko lirateke, alderdi bien adostasunaz, gaia betiko argitzeko.

Proba horiek eginda, jakingo genuke epaiketa egin behar den ala ez.

Eliseo eta Oskarren egun bakoitza kalbario bat da. Ezin da horrela jarraitu zientziaren aurkako jarrera horrekin. Gainera datazioak zenbat eta beranduago egin, gero eta kalte gehiago sortuko da. Hobe lehenbailehen egitea.

Jaurlaritzak orain arte bezala jarraitzea erabaki dezake, Eliseo eta Oskarren bizitza betiko sententziaz baina historia baino epaile hobeagorik ez dagoenez (Altamira lekuko), gai hau benetako harlauza bihurtuko da, Aldundia, Jaurlaritza eta Letren Fakultaterako.

Jaurlaritzak gai hau zuzentzen ez badu, betiko lotsaren zama eta bidegabekeriaren erakusle nagusi bihurtuko da.

Egiari zor.

Horrez gain, eta datazioak orain egitearen aurka eta Eliseo eta Oskarren kalbarioa luzatzearen alde duzuen jarrera ikusita, eta zuen gutunaren edukia aztertuta, gure aldetik ohar txiki batzuk eta bigarren eta azken eskaera:

1. Epaitegiaren zain egoteko diozu baina ondotxo dakikezuenez Epaitegiak ez du gaia zientziaren bidez argitu nahi, orain arte grafitoak ez dituelako prestigiooko laborategietan datatu nahi izan. Gainera ez ditu piezak babesten ari eta alderdi akusatzailearen esku laga ditu eta beraz zaintza katea apurtzea onartu du. Edozein herrialdetan horregatik bakarrik artxibatuta egongo litzateke. Epaiaketaren zain egotea bi akats larri hauek onartzea dela uste dugu.
2. Munduko arkeologo famatuena den Edward Harrisek Gasteizeraino etorri zenean landa koadernoak aztertu zituen eta argi esan zuen: lan arkeologikoa ondo egin da eta grafitoak esandako garaikoak dira baina zalantzak badaude datazioak eta auditoria egin behar dira (baita EHUren lanaren auditoria ere). Datazioak zergatik ez diren egin galdetu zigun, eta garbi esan genion: administrazioek eta EHUK ez dute bide zientifikoa jarraitu nahi. Beste hau ere esan du: ez zuela munduan ezagutzen bi arkeologo horrela inputatuta egotea, gaur egungo bide zientifikoak erabili nahi gabe.
3. Gutunean esan diguzu akusazio gogorrak egiten dizkizuegula, kontuan hartuta Aldundia dela gai honen kudeaketa nagusia daraman erakundea. Bilera arte horrela uste genuen baina ondarearen jabea Jaurlaritza dela ikusi dugunean eta batez ere, hirugarren aldiz hondeamakina indusketara sartu duzuela eta beste suntsiketa bat, Jaurlaritzaren diruaren eta babesarekin, egin dela ikusita, benetan, barrutik atera zaigu. Aski da! Gaia argitu arte ez dadila inor sartu horra. Ez utzi hondeamakina berriro lur hori zapaltzea!
4. Akusazio gogorrak egiten dituen Aldundia, Fiskaltza eta Jaurlaritza dira. Zuen kasuan Jaurlaritzak 300.000 euroko isuna eskatzen duen txostenaren egilea da eta hori gaur egungo arkeometriari homologatutako froga zientifikorik gabe egin duzue, erabat gaindituta dauden 6 txostenetako irizietan oinarrituta soilik, eta hori bada, benetan, larria eta mingarria.

Ondo dakizuenez IPCEk egindako txostenaren hutsuneak handiegiak dira arkeometriako datazio lan gisa hartzeko. Izan ere, benetako datazioetan euskarri mota guztiak aztertzen dira: adreiluak, hezurak, zeramikak, beirak... Bestetik zeramiketan, idazkunen ildoen barruan dauden karbonato kaltzikoak edo sedimentuek zenbat denbora daramaten aztertzen dira, ez gainazalean dauden metalak (horiek garbiketaren informazioa besterik ez digutelako ematen).

Hori dela eta honako hau eskatu nahi dizuegu:

Eusko Jaurlaritzak Epaietatik erretira dezala bere txostena, non esaten den Eliseok eta Oskarrek 300.000 kaltea egiten dutela indusketan. Izan ere, txosten hori dataziorik egin gabe funts gabeko txostena ei da eta ez luke oinarri zientifikorik izango.

Adeitasunez

2018ko uztailaren 30ean